

VIII EUSKAL HERRIKO ESKULANGINTZA AZOKA

VIII Feria de Artesanía
del País Vasco

VIII Foire d'artisanat
du Pays Basque

ERRENERIA
1986 Maiatzak 1-4

Antolatzailea:
EREINTZA
ELKARTEA

Laguntzaileak:
GIPUZKOAKO
FORU
ALDUNDIA
ERRENERIAKO
UDALA

Aurrezki Kutxa
Probintziala
Aurrezki Kutxa
Municipala



VIII EUSKAL HERRIKO
ESKULANGINTZA AZOKA

VIII FERIA DE ARTESANIA
DEL PAIS VASCO

EREINTZA ELKARTEA - Errenteria
KATALOGOA

CATALOGO

AÑO 1986 URTEA

HITZAURREA

Euskal Herriko herri-kulturan usadiozko zat jotzen diren musika-tresnek, normala denez, herriaren bilakaeraren arabera aldatu dira, industri iraultza indartzean, artzain eta nekazarien kulturan izan duen eraginarekin, usadiozko bizimoldeak atzeraka joan dira. Honela, artzain eta nekazarien artean «berezkoak» ziren musikatresna asko galduak dira, eta gaurregun, oroitzapen soil dira.

Usadiozko musika-tresnen arazo hau eta berauekin lotura estuan dauden koreografia eta musika interes handikoak dira, horregatik behar bezala tratatu beharrean gaude material hauek gure Herria eta beronen kulturazko izate ugaria ulertu nahi baditugu.

Garrantzizkoa zatekeen musika-tresnen geografi banaketa ona izatea, berauen dentsitatea, morfologia eta aldakinak finkatu ahal izateko. Hau, gaur-gaurkoz, ia ezina da. Tresna asko galdu da eta eskuratuko ditugun xehetasun historiko-dokumentalak, lan sakon bat egiteko, oso eskasak izango dira, batez ere tresna-mota batzuei dagokienean. Zera esan nahi dugu, alegia, Euskal Herriko zenbait alderditan musikalariei buruz dauden datuek, adibidez, danbolin-joleei buruz Nafarroaren erdi aldean, ez digute sinestrazi behar koreografiak eta erritmo-doinuzko joerek erabateko berdintasuna zutenik gaurregun atlantiar alderdian bizirik dirautenekin.

Finkapena egon dela hizkuntzaren eta gainerako usadiozko kultura guztiaren artean uste izaten dugu halako moldez ezen hizkuntza galdu den eskualdeetan ere gaurregun hizkuntza oraindik bizirik dagoen tokietan bezalako osagai musikal, koreografiko eta instrumentalak izan bide ziren.

Hau uste izateak Euskal Herrian alderdi atlantiarra eta alderdi mediterranea digutula ez ulertzearen hutsa egitera garamatza, usadiozko musika eta tresnei dagokienean. Honek argituko luke, adibide bat aipatzearen, Zuberoako herrialdeak penintsulako euskaldun askorentzat nolabait duen «exotismoa»; exotismo hau haren kulturak duen izaera piriniotar-mediterraneoan oinarritzen da eta ez euskal kizko desberdintasun hutsean.

Sarrera labor honen bitartez arazoa larriki planteiatzea besterik ez du egin; luzeago joko liguke arazoa zabal jorratzeak, interesgarria litzatekeen arren.

Sailkapenak egitekotan, A. Donostiak egin zuenez, eta gu geu ere horretan ari gara C. Sach musikologo alemaniarrek azaldu zuenaren ildotik familiaka taldekatu lirateke. Baina Idiofonoak, Membranoak, Kordafonoak eta Airefonoak izeneko sailkapenaz gainera, nekazal edo erlijio egutegiaren barruko-oitura berezein barruan ageri dira tresnak, haurraren munduan eta, halaber, bakoitzak duen arkaismo handiago edo txikiagoaren arabera ere azter daitezke musikatresnak.

Musikatresna batzu zergatik geratu diren usadiozko kulturan finkaturik denboran zehar jakin nahi bada, arrazoi bakarra dagoela ikusiko dugu. Dantzarekin loturik egon da musikatresna. Horregatik, atlantiar alderdiak, dentsitate eta ugaritasun koreografiko handiagoa izan duenez gero, airefonoen saileko tresna eta jole gehiago du, alderdi mediterraneoaren aldean, izan ere, hemen beste ohitura eta tresna batzu ageri bait dira.

Dantzan lagungarri diren tresnak, nolabait esateko, eta oso sinpleak izanik ere, orkestra gisa eratzten dira eta linea melodikoak eta batez ere erritmoak esanahi handia dute. Zentzu honetan, usadiozko kanta zaharra bestelakoa da; tradizioari loturik badago ere, interpretazio libreagoa bait du. Dantza, gorputz-erritmoaren menpean dagoenez gero, konplexua eta aldatzen zaila da, nahiz eta oinarritzko erritmoa oso sinplea dela uste izan.

Atlantiar alderdiko jendearentzat, oraindik euskararen kutsua galdu ez duen kultur-munduan bizi direnentzat egin ditut gogoeta hauek. Zeren gure herriaren izate geografikoa aztertzerakoan, zalantzarik gabe, txikia izanik ere, aipaturiko kokaren geografikoaren ondorioz musikatresna, kantu eta dantza eta doinu-era aberats eta ugariak bait ditu eta berauen jatorriari buruzko gogoetarik gabe, erabat kontraesankorra agertzen zaigu.

«Euskaldunen musika tresnak» erazua
Juan Antonio Urbeltz 1985

PROLOGO

Los instrumentos musicales que podemos considerar tradicionales dentro de la cultura popular del País Vasco, han sufrido, como no podía ser de otra manera, el devenir histórico de éste. El auge de la revolución industrial, con la consiguiente presión sobre la cultura agrícola y pastoril, han hecho que los modos de vida tradicionales se debatan en una franca regresión. Por tanto muchos instrumentos musicales que tenían un asentamiento «natural» entre los pastores y labradores han desaparecido y, en el momento actual, no son sino un recuerdo.

Este asunto de los instrumentos tradicionales y de la coreografía y la música a la que van tan unidos tiene un gran interés, por ello debemos tratar adecuadamente estos materiales si deseamos una comprensión del País y de su variada realidad cultural.

Hubiera sido muy importante el tener una buena distribución geográfica de los instrumentos musicales, con la posibilidad de fijación de su densidad, morfologías y variantes de éstas. Esto, hoy en día, es prácticamente imposible. Muchos instrumentos han desaparecido, y los datos de tipo histórico-documental que podamos conseguir serán, para un trabajo profundo, claramente insuficientes, sobre todo en algún tipo de instrumentos. Queremos decir que en algunas áreas del País la existencia de datos sobre músicos, por ejemplo: tamboriles de la zona media de Navarra, no nos debe llevar a suponer que la coreografía y las líneas rítmico-melódicas tuvieran correspondencia total con las que actualmente tienen vigencia en la zona atlántica del País.

Creemos ha existido una fijación entre lengua y todo el resto que comprende la cultura tradicional, de manera tal que, en las zonas donde se ha perdido la lengua, tenían que existir elementos musicales, coreográficos e instrumentales, semejantes a los que existen actualmente donde la lengua está en plena vigencia.

El suponer esto nos lleva al error de no comprender que en el País Vasco tenemos un área atlántica y un área mediterránea de cultura, en lo que a los instrumentos y a la música tradicional se refiere. Esto explicaría en cierta manera el «exotismo» que la provincia de Zuberoa, por citar un ejemplo, tiene para muchos vascos peninsulares; un «exotismo» que se basa, fundamentalmente, en el carácter pirenaico-mediterráneo de su cultura y no, exclusivamente, en su variante dialectal.

Con esta breve introducción he pretendido situar el problema en sus líneas más elementales, asunto de más tiempo es el tratarlo de manera extensa, tal y como a su interés corresponde.

Si de clasificaciones se tratara, que ya fue tratado por el P. Donostia, y nosotros mismos seguimos trabajando, habría que recurrir al agrupamiento por familias tal y como fue expuesto por el musicólogo alemán C. Sach. Pero además de la división de Idiofonos, Membranófonos, Cordófonos y Aerófonos, los instrumentos se encuentran en el interior de costumbres especiales dentro del calendario religioso o agrícola, dentro del mundo infantil y, asimismo, los instrumentos pueden ser observados según su mayor o menor arcaísmo.

La explicación al por qué de determinados instrumentos han quedado fijados en la cultura tradicional a través del tiempo, tiene una motivación que podemos considerar única. Es aquella que vincula el instrumento musical con la práctica de la danza. Por esta razón dentro del área atlántica, con una mayor densidad y variedad coreográficas, subsisten más instrumentos del grupo aerófono y más ejecutantes de estos instrumentos, que en el área mediterránea, donde en otro tipo de costumbres que comentaremos brevemente, asientan otros instrumentos musicales.

Los instrumentos que acompañan a las danzas se constituyen en cierta manera, y por simples que éstos sean, en una forma orquestal, donde la línea melódica y sobre todo el ritmo tienen un papel preponderante. En este sentido la canción tradicional es diferente, aun cuando está sujeta a la tradición, tiene una interpretación más libre. La danza, sujeta a un ritmo corporal, es en sí misma complicada y difícil de alterar, por simple que nos parezca el ritmo sobre la que descansa.

A esta falta de comprensión, tanto por falta de conocimiento como por deficiencias de enfoque en el análisis organográfico del País, he tratado de hacer referencia en esta pequeña introducción.

A las gentes del área atlántica, donde el euskera todavía impregna en mayor o menor medida su mundo cultural han ido dirigidas estas reflexiones finales. Porque no hay duda que la comprensión de esta realidad geográfica nos puede hacer ver un País, el nuestro, que aún siendo pequeño tiene, por la situación geográfica ya apuntada, una riqueza y variedad de instrumentos, cantos, estilos coreográficos y ritmos que, sin una reflexión acerca de su proveniencia, nos lo hacen aparecer intensamente contradictorio.

VIII EUSKAL HERRIKO ESKULANGINTZA AZOKAREN EGITARAUA

ERAKUSKETA

- "EUSKAL HERRIKO MUSIKATRESNA TRADIZIONALAK"
80-ren bat musikatresna eta bere egintza prozesuen bilduma, folklore eta ohituretan, herri eta eleiz bizitzan, lana eta atsedenean erabilitakoak.
Prestaera eta muntaia: Donostiako IKERFOLK Taldea.

HITZALDIA

- "TRADIZIOZKO MUSIKA ETA MUSIKATRESNAK
EUSKAL HERRIAN"
Hizlaria: Juan Antonio Urbeltz, folklorista.

IKUSKIZUNAK

- JAIALDIA. Euskal Herriko musika tradizionala "ARGIA"
DANTZARI TALDEKO SOINULARIEN eskutik.
- EUSKAL MUSIKATRESNEN ENTZUNALDIA.
 - TOBERA, ADARRA, TXALAPARTA: Irungo Koldo eta Xabier Sortzabalbere.
 - EZKILAK: Errenteriako Luis Salaberria.
 - XIRULA: Zuberoako Jean Michel Bedatxagar eta Jean Michel Barreix.
 - TXISTUA: Baztango Maurizio Elizalde eta Félix Iriarte. Errenteriako "Ereintza" Txistulari Banda.
 - DULTZINA: Gasteizko "Alaitu" Banda.
 - TRIKITIXA: Albizturgo "Iñaki eta Ramón.

PROGRAMA DE LA VIII FERIA DE ARTESANIA DEL PAIS VASCO

EXPOSICION

- "INSTRUMENTOS MUSICALES TRADICIONALES
DEL PAIS VASCO"
Colección de unos 80 instrumentos musicales, con sus procesos de fabricación, utilizados en el folklore y costumbres, en la vida civil y religiosa, en el trabajo y en el ocio, etc.
Preparación y montaje: Grupo IKERFOLK de Donostia.

CONFERENCIA

- "INSTRUMENTOS Y MUSICA TRADICIONALES
EN EL PAIS VASCO"
Ponente: Juan Antonio Urbeltz, folklorista.

ESPECTACULOS

- RECITAL de música tradicional del País Vasco a cargo de
"ARGIA" DANTZARI TALDEKO SOINULARIAK.
- AUDICION DE INSTRUMENTOS AUTOCTONOS.
 - TOBERA, CUERNO, TXALAPARTA: Koldo y Xabier Sortzabalbere de Irún.
 - CAMPANAS: Luis Salaberria de Errenteria.
 - XIRULA: Jean Michel Bedatxagar y Jean Michel Barreix de Zuberoa.
 - TXISTU: Maurizio Elizalde y Félix Iriarte de Baztán. Banda de Txistularis "Ereintza" de Errenteria.
 - DULZAINA: Banda "Alaitu" de Gasteiz.
 - TRIKITIXA: "Iñaki eta Ramón" de Albiztur.

PARTE HARTURIKO ARTISAUAK

ARTESANOS PARTICIPANTES

ZURA-MADERA

ARGIZAIOLAK, KUTXAK, ATABAKAK (Talla tradicional vasca).

— Fermin Anda (Bakaikoa).

IRUDIAK, HAUSPOAK, KUTXATILAK... (Talla diversa).

— Ricardo Etxeberria
(Abaltzicketa).

HALTZARIGINTZA (Artesanía del mueble).

—*Carmelo Boneta (Lizarra)
— Daniel Ruitz (Donibane Garazi)

MAKILAK (Makillas).

—*Pettiri Harispuru
(Ibarla-Nafarroa Beherea)

KAIKUAK, OPORRAK, ABATZAK, ESKALAPROIAK... (Útiles tradicionales).

— Domingo Etxandi (Errazu)

UZTARRIAK (Yugos).

— Eulogio Iraola (Asteasu)

ESKUAREAK, SEGA-GIRTENAK (Rastrillos y mangos de guadaña).

— Agustín Legorburu (Segura)

GORUAK, GORUETA (Ruecas e hilado).

—*Joxeba Gaztiazin (Urretxu)

UPELGINTZA (Tonelería).

— José Fernández (San Adrián)

OTARGINTZA - CESTERIA

GAZTAIN ZUMITZEZKO OTARGINTZA (Cestería de fleje de castaño).

— Juan Unzueta (Durango)

ZUME OTARGINTZA (Cestería de mimbre).

— Pedro Jesús Castillo (Azkoien-Peralta)

PILOTARAKO SASKIGINTZA (Cestería de frontón).

—*Arriaga Anaiak (Berriz)

IHI ESKULANGINTZA (Artesanía del junco).

— Galparsoro Sendia (Segura)

LURRA ETA ANTZEKOAK TIERRA Y AFINES

BUZTINGINTZA (Alfarería).

— Gregorio Aramendi (Zegama)
— Ollería Iradier (Gasteiz)

KERAMIKA (Cerámica).

— Gerardo Pescador (Lezo)

HARGINTZA (Cantería).

— Cesario Soule (Arizkun)

BEIRA PUZTUA (Vidrio soplado)

— Soplados Arias (Bilbo)

BEIRA TAILAKETA (Talla del vidrio).

— José Ramon Tabar (Iruñea)

HONDAR TINDATUAK (Arenas teñidas).

—*Jordi Martí (Donostia)

BURNI ETA METALKIAK HIERRO Y METALES

BURDINLANTZA ARTISTIKOA (Forja artística).

— Jesús Juanto (Zangotza)
— Francisco Martín (Elgorriaga)

DAMASKINTZA (Damasquinado).

—*Eibarko Damaskinatu Eskola
(Eibar)

BERUNEZKO IRUDIGINTZA (Figuritas de plomo).

—*Aitor Eguibar (Donostia)

OHIALKI ETA LARRUA TEXTIL Y CUERO

EHUNGINTZA (Tejido).

— Anezka Taldea (Gasteiz)

BOLILLOAK (Encaje de bolillos)

— Quiteria Millán (Errenteria)

TAPIZGINTZA (Artesanía del tapiz)

—*Sol Miranda (Donostia)

SAREGINTZA (Redería varia).

— Dionisio Usarraga (Hernani)

ESPARTZINAK (Alpargatas)

— Leandro Etxebeste (Hondarribia)

MARINEL ESKULANGINTZA (Nudos marineros).

—*Eduardo Lorenzo (Errenteria)

ABARKAK (Abarcas).

— Juan Elgarresta (Gabiria)

ZAHATOGINTZA (Botería).

—*Genaro Etxeberria (Ondarroa)

GOARNIZIOGINTZA (Guarnicionería).

— Melchor Vicente Labat (Lizarra)

LARRUZKO PILOTAK (Pelotas de cuero).

— Jeremías Pérez (Anoeta)

LARRUAREN ESKULANGINTZA BERRIA (Nueva artesanía del cuero).

— Miguel A. Mitxelena eta
Rosa Foronda (Erandio)

KONFITERI ETA JANARIAK CONFITERIA Y ALIMENTACION

ARGIZAIGINTZA (Cerería)

— Miguel Azkarate (Tolosa)

ERROSKILAK ETA PIPEROPIIAK (Rosquillas y piperopillas)

—*Telletxea Sendia (Ordizia)

BOLADOAK (Bolados)

— Juan Carlos Ubarretxena
(Donostia)

EZTIA, ERLAUNTZAK (Miel y colmenas).

— Joxe Albizu (Zegama)

TALOOK (Talos).

— Loiarde-Elizalde Sendia
(Zubieta-Nafarroa)

KONFITERI PRODUKTO JATORREN SALMENTA (Venta de productos típicos de confitería).

GAI NAGUSIA 1986
TEMA ESPECIAL 1986

**MUSIKATRESNAK
INSTRUMENTOS MUSICALES**

ADARRAK (Cuernos)

— Juan Antonio Alaña (Menagarai)

KIRRIKAK (Carracas).

— Joxe Mari Urroz (Oitz)

XIRULAK (Xirulas).

—*Didier Queheille (Iruri-Zuberoa)

TXISTUAK (Txistus).

—*Jesús Seguro (Urretxu)

**DULTZINAK, ALBOKAK, XANBELAK
(Dulzainas, albokas, xanbelas)**

— José M. López de Elorriaga eta
Patxi Martínez de Luna (Gasteiz)

—*Tomás Díaz (Iruñea)

**DULTZINA ATABALAK, PITAK
(Atabales de dulzaina y pitas)**

—*Tolosako Dultzineroak (Tolosa)

**PIANOAK, ORGANUAK, BIOLINAK
(Instrumentos de cuerda).**

—*Javier Argaiz (Donostia)

**AIRE MUSIKATRESNEN
KONPONKETA (Reparación de
instrumentos de viento).**

—*Jesús Piquer
(Yosu Musika-Tresnak) (Errenteria)

ARTISAU ETA LANGINTZEN
BERRI-LABURRAK
RESEÑAS DE ARTESANOS Y
ESPECIALIDADES

*OHARRA: * Ikurra ez daramaten artisauen
berri-laburrak ez dira Katalogo honetan agertzen;
izan ere aurreko Azoken Katalogoetan
sarturik bait daude.*

*NOTA: Los artesanos que no llevan asterisco
no aparecen reseñados en el presente Catálogo,
al estar incluidos ya en los Catálogos
de Ferias anteriores.*

Artisaua:
CARMELO BONETA LOPETEGI

Jaioteguna: / Fecha de nacimiento:
1946, Apirilak 25

Helbidea: / Domicilio:
Gesalaz Kalea, 1-3º ezk.
LIZARRA (Nafarroa)

Telf. 55.14.81



Aurkespen gisa:

Hamalau urte dituela hasten da ikasten Madrilén. Handik lau urtetara, hemezortzi urte dituenean, Nafarroako herri iruditeria berriztapen lanetan dihardu. Arte herrikoiaren ikerketari ekiten dio eta azken 150 urteotan Nafarroan emandako buztingintzaz datu interesgarriak biltzen. Madrilén bere berriztapen lanetarako tailerlean haltzariak, marfil, kaoba, ebano eta ebanisteritza fina lantzen du. Enkarguz jendeak emandako lanen arabera bideratzen.

Gaur egun ere honelako lanak eginez bizi da Lizarran. Bere lanak ferietan saltzen ditu. Frantzia, Alemania eta Ingalaterrara ere saltzen hasia da martxanteen bitartekotzaz baliatuz.

Otros datos

A los catorce años empieza su aprendizaje en Madrid. Cuatro años más tarde, a los dieciocho años, trabaja restaurando altares e imaginería popular en Navarra. Investiga sobre las artes populares y recoge notable cantidad de datos sobre la alfarería en Navarra en los últimos 150 años.

En el taller de restauración de Madrid se dedica a restaurar muebles, marfil, caoba, ébano y ebanistería fina. Todos los trabajos los efectuaban para particulares que habían solicitado su encargo.

En la actualidad vive de este tipo de trabajo artesano. Tiene el taller en Estella y vende los productos en ferias. También ha comenzado a exportar a países como Francia, Alemania e Inglaterra por medio de marchantes.

EGUR TAILA (II)

Artesautza forma honi "artzain artesautza" ere dei genezaioke. Artzaiak bakardadean botatzen dituen ordu luzetan, eta urte osoan zehar, eskulangintza lanetan xautzen du bere denbora. Gardatu, irundu eta galtzetin egin zale dira. Txarrantxatzeko karda delakoaz baliatzen dira, Pirineoan zehar ematen diren antzekoa bera. Iruntzeko, berriz, txatila darabil eta galtzerdiak egiteko txilarrezko galtzerdi orratzak.

Artzaiak badu beste zenbait lan burutzeko astirik, hara nola makilak labainaz lantzeko, zimitza euskarriak, kartolak, txurkak, txaliak, egurrezko kutxareak, kotxak, zildaiak eta abar.

Alde handia dago Euskal Herriaren erdi aldean, hegoaldean edota Goi Pirineoaren ekialdean landutako egur tailetan, eta desberdintasunak nabarmenak.

Arabian mendietako hego eta mendebalean artzaiak lantzen duten tailak, eta Erronkarin ematen denak badu egituraren antzekotasunik Gaztelan edo Iberiar Penintsula barne aldean egiten denarekin.

Euskal teknikaren funtsa batez ere zuhaitz mardulen egur taila lanean datza. Hezur edota zuhaiska egur gogorretan eginiko tailak ez du indarrik.

TALLA EN MADERA (II)

Esta forma de artesanía se puede denominar "artesanía pastoril". Durante las largas horas de soledad y a lo largo de todo el año, los pastores se dedican a varios trabajos manuales. Son muy aficionados, por ejemplo: a cardar, hilar y hacer media. Para lo primero usan de cardas ("kardak") de un tipo común en el resto del Pirineo; en el hilado emplean la torcedera ("txatill") y en la labor de hacer media, distintos tipos de ganchillos ("galtzerdi orratzak") de madera de brezo.

Aún tienen tiempo de fabricar, a punta de navaja, bastones o "makillak", con adornos varios, soportes para las "zimitzak", llamados "karkol" o "txurka", fuentes ("txaliak") de madera y cucharas ("kutxare") para comer, así como otros recipientes ("kotxak"), collares para las reses ("zildaiak") y trabillas.

La talla de la madera en el corazón de Euskal Herria y el arte de la talla en madera en las zonas meridionales y Alto Pirenaica oriental son muy distintas y admiten grandes diferencias.

La talla, en general, de los pastores de las sierras alavesas del sur y del oeste, así como las que hacen los roncaleses, ofrecen una entidad de concepción con los que fabrican muchas de las gentes castellanas, o del interior de la Península Ibérica.

La técnica vasca, propiamente dicha, se funda, sobre todo, en la talla de la madera de árboles relativamente corpulentos. La talla en hueso y maderas duras de arbustos es una talla de tipo marginal.

Artisaua: PETTIRI HARISPURO

Jaioteguna: / Fecha de nacimiento:
1957, Azaroak 14

Helbidea: / Domicilio:
IBARLA (Nafarroa Beherea)



Aurkespen gisa:

Hamalau urte dituela hasten da Bearneko Gurs herrixkan haltzari lantegi batean taila lanetan ikasten. Handik bost urtetara bere kontura jartzen da Ibarlan Iparraldeko haltzari lantegientzat lanak eginez.

Iparraldean egungo krisi ekonomikoak haltzari lantegiak biziki astindu dituelarik, lana eskastuz doa. Une horretan ekiten dio makilak egiteari.

Alde batetik bere lanbide bezala, egoera horretan emandako irtenbide bezala ikusten du, eta bestetik galzorian zegoen artisautza berreskuratu asmoz lotu zaio makilak egiteari.

Makilagintza ikertuz eta istudiatuz aritu da eta bide horretatik orain arteino Zuberoan, berak dioenez, D'Algalarrondo deritzan artisaua iraunarazi duen artea zuzpertzeko unea ezagutzen du. Bere lanak Iparraldeko dendetan eta ferietan saltzen ditu.

Otros datos:

Con catorce años empieza el aprendizaje de tallista en Gurs de Bearn, en una fábrica de muebles. Cinco años después comienza a trabajar por su cuenta en Ibarla para fabricantes de muebles de Iparralde.

Con la crisis económica que en Iparralde afecta de gran manera a las industrias del mueble, su trabajo se ve reducido. Es en este momento cuando comienza con la artesanía de las "makilas". Por un lado lo ve como una salida a su trabajo y por otro como la recuperación de una artesanía casi en desaparición.

Con el estudio e investigación del proceso de fabricación de "makilas" comienza la supervivencia de un arte que, según nos dice, lo mantenía un tal D'Algalarrondo de Zuberoa.

Recibe encargos en su taller de diversas tiendas de Iparralde y hace trabajos para las ferias de artesanía.

"MAKILAK"...

"Makilak", edo euskaldunon esku-makilak, dotorea eta beldurrik sor dezakeana era berean, mendian bertan hasera duen lan mantso eta neketsua du berekin. Mizpira edo gaztainondoan hautatzen ditu artisaauak bere egurrak, eta —gutxienez urte betez lehenago—, labainaz halako ebaki batzuk egiten dizkio, eta ondoren zapi batez estaltzen, euria bertatik sar ez dadin. Bere barnean daraman izerdiak makilaren erliebe edo dibujoak osatuko ditu. Egurra neguan eta hilbeheran moztu ondoren, berotuz zuzenduko du, segidan koloreztatzeari ekiteko kare bizian egurra sartuz.

"Makila"ren bi ertzak arma bi beldugarri gertatzen dira. Behe aldean, latoizko kaskilu batez, eskuz landua, hornitzen da, bere barne baitan berun salda sartzen da. Bere goieran, girtenaz estalia, altzaruzko punta darama. Girten edo heldulekua larruz txirikordatutako tubo batez osatua dago, eta adar bola bat darama gainean; girten honetan artisaauak, bere jakitateak edo jeinuak dioenaren arauera, esaldiren bat grabatzen du.

Esan beharra dago makila malu zorrotzez eta begi uztaiez, Iparraldean eman ohi den bezala, Treveris ingurutako, Rhinetik bertan, "mispel"aren antzekoa dela.

Dagoen desberdintasun nabarmena hemengoa sista makila dela zerbait etnograforen eritziz akuilutik erakarria izan daitekeelarik.

MAKILLAS

La "Makila" elegante y temible a la vez, requiere de un proceso de fabricación lento y trabajoso que se inicia en el mismo monte. Elegida la vara de níspero, el artesano procede, al menos un año antes de cortarla, a practicar unas incisiones a punta de navaja, y a forrarla con un trapo a fin de que la lluvia no penetre en las mismas. La savia que corre por el interior conformará los futuros relieves o dibujos del bastón. Una vez cortada la vara, en invierno y en luna menguante, la enderezará al calor para seguidamente proceder a tefirla, a base de mantenerla en cal viva.

Las dos extremidades de la "makila" son dos armas temibles. La inferior o porra se remata con un casquillo de latón repujado a mano, en cuyo interior se ha vertido una colada de plomo. La superior va armada con una punta de acero oculta dentro de una empuñadura. En esta empuñadura que está formada por un tubo recubierto de cuero trenzado y coronada por una bola de cuerno, el artesano graba la sentencia o proverbio que le sugiere su saber o ingenio.

También hay que advertir que la "makila" con la contera apuntada y con abrazadera de córnea, según se usa en Iparralde, es análoga al "mispel" de las cercanías de Treveris, cerca del Rhin, con la diferencia trascendental de ser la "makila" un bastón de estoque, que muchos etnógrafos lo suponen derivado de la "aguijada".

Artisaua: JOSEBA GASTIAIN
SAEZ DE ZERAIN

Jaioteguna: / Fecha de nacimiento:
1955, Apirilak 5 - AGURAIN (Araba)

Helbidea: / Domicilio:
Ipiñarrieta Kalea, 18-6.º Ezk.
URRETXU (Guipuzcoa)

Telf. 76.61.86



Aurkezpen gisa:

Mekanikaria ofizioz, bere aitagarreba iruntzen ikusten duenean goruak egiteari ekiten dio. Duela hiru urte baserri batetik goru bat eskuratu zuen eta, berau muestra erara erabiliz, berriak egiten ditu.

Era guztietako produktuak iruntzen ditu, jertsia, galtzerdiak eta abar. Tramankuluaren eusgarria pago egur tailatuz osatua da. Gorua bera gaztain egurrez egina, gurdiskak lizarrez eta tiragailuak ezpelez.

Hamar urte txistu eta xirula joaz zerman arren, 1985an xirulak egiteari ekiten dio autodidakta gisa.

Otros datos:

Mecánico de profesión, comienza a trabajar en la fabricación de ruecas al ver a su suegro hilando. Hace tres años consiguió una rueca en un caserío y comenzó a fabricarlas, sirviéndole ésta de muestra.

Comienza a hilar todo tipo de productos, como jerseys, calcetines, etc.

El armazón de la rueca es de madera de haya tallada, la rueca de castaño y los carretes de fresno y los tiradores de boj.

En 1985 se inicia de forma autodidacta en la fabricación de xirulas. Hasta esta fecha y desde hace diez años, se dedica a tocar el txistu y la xirula.

GORUAK

Erdia Aroan jadanik garrantzi handikoa zen gorua linu eta kalamuzko ehungintzan. Angosto Ehungileen Ordenantzetan honelatsu agintzen zitzaien 1562 urtean ofizialei "non texcan en peyne de cordellate ny en otro alguno, salvo estambre peynado e fylado a la rueca". Europako beste herrialdeetan gertatu zenaren antzera, artile langintzara egokitua izan zen geroztik tresna hau. Berebiziko eragina izan zuen eraldaketa honek, batez ere goruari kentzen zioten etekina gogoan hartuz.

Goru tresna taila ugariz hornitua dago bere estiloak, gainontzeko tresna eta haltzariekin gerta ohi denaren antzera, badu beste herrialdeetakoarenarekin antzekotasunik eta baita desberdintasunik. Hara nola Suiza, Oihan Beltza, Noruega eta Rusia, zeinetan oso saiatuak bait dira egur tresneriaren taila ornatuetan arte herrikoien alorrean, jakitun eta jende arruntak maitatu, hezi eta aintzat hartutako arte lanean hain zuzen.

Ekialdeko eta Italiako goruek ez bezala, Euskal Herriko ardatzak ez du gantxurik, baina ekialdekoak eta napolitanoek ez duten torlojua du hemango ardatzak.

RUECAS

Ya en la Edad Media la aplicación de este instrumento era fundamental en la industria textil del lino y del cáñamo. En las Ordenanzas de Tejedores de Angosto en 1562 se ordenaba a los oficiales que "non texcan en peyne de cordellate ny en otro alguno, salvo estambre peynado e fylado a la rueca". De aquí, como sucedió en el resto de Europa, fué adaptada a la industria textil lanera. Innovación que tuvo una importancia revolucionaria, debido al fuerte aumento de los rendimientos que se podían obtener con la rueca.

La rueca tiene profusión de entalladuras, en cuyo estilo se podrían marcar como en otros utensilios y muebles las diferencias y analogías con los de otros países, como Suiza, La Selva Negra, Noruega y Rusia, que tan característicos son en el arte popular de la talla ornamental en los objetos de madera, arte en ella mimado, educado y ponderado por sus clases cultas y populares.

El huso vasco no tiene gancho como en las ruecas italianas y orientales, pero sí tornillo, del cual éstos últimos y los napolitanos carecen.

Artisauak: MIGUEL ANGEL eta
JOXE ARRIAGA URIARTE

Jaiotegunak: / Fechas de nacimiento:
1956, Apirilak 3 / 1960, Uztailak 12

Helbidea: / Domicilio:
Iturriza Kalea, 23-4.º - BERRIZ (Bizkaia)

Telf. 682.48.68



Aurkezpen gisa;

Saski pilotan afizionatu gisa jokatzu hasten da Migel Angel. Bertan hamar urte bota eta gero, belau zauri bat merio, laga egingo du. Gernikako pilotalukuan irakasle den Jose Etxaberen eskutik ikasteari ekiten dio, saskigile ere bai bait zen aspaldidanik. Bi urte elkarrekin egin eta gero, bere kontura hasten da pilota saskigintza lanetan Berrizen.

Joxe Lanbide Hezketa ikastetxe batetan elektrizista ikasten ari bazen ere, istudioak alde batera utzi eta bere anaiarekin lantegian jartzen da.

Pilotari profesionalen eskariak jasotzen dituzte, batez ere EE.BBetan, Miamin, New Yorken, Milforden... diharduten pilotarien eskaerak. Sortzen duten ehuneko larogeiren produzioa bertara zuzentzen dute. Gainontzekoa Durangoaldeko pilota lekuetan.

Otros datos:

Miguel Angel comienza jugando como aficionado a la cesta-punta. Hace diez años se retira por causa de una lesión en la rodilla. Comienza a aprender con el profesor del frontón de Guernica, José Etxabe, también cestero desde hace mucho tiempo. Trabaja con este último un par de años y decide establecerse por su cuenta en Berriz.

Joxe estudiaba Formación Profesional de electricista. A los diecinueve años deja los estudios y comienza a trabajar con su hermano.

Reciben pedidos de los pelotaris profesionales, sobre todo de los que están jugando en EE.UU., en Miami, New York, Milford,... A ellos va dedicada el 80% de la producción. El resto para los frontones del Duranguesado.

PILOTARAKO SASKIGINTZA

1860 urtean zumez ehunduriko esku-larru gisako bat egitea otu zitzaion eraberritzaile bati Senperen. Guante berri hau Gipuzkoara ekarri zuten eta bestek ez bezalako arrakasta izan zuen, garaitsu hartako raketa gisakoak baino haundiagoa. Hemen-dik sortu zen txistera edo kirol saski tresna. Pilotagintza aldatu eta pilotalekutan ezker pareta egin zenarekin batera erruz aldatu zen pilota jokoaren joera Euskal Herriko lurralde askotan. Lehenik saski pilota ("blai" edo "blaid" delakoa) sortu zen, eskuzko binakakoa ondoren. Saski pilota edo "joku zikin" deiturikoa bezalako joku motak hedatuz joan ziren, saski sakonean pilota zerbait bilduz jokatzeko bait zen; "erremontea" nafar eta gipuzkoar profesionalak saski zuzenago batez jokatzeko dutena, pala jokoa, gehienbat bilbotarrek landua, eta trinkete edo pilotaleku itxiarena.

Egungo profesionalismoaren kirol joerak eta diru jokorako pilota jokoa eskaintzen duen paradak, joera berri hauek asko hedatzen ditu.

CESTERIA DE FRONTON

Hacia 1860, en Saint Pé, hubo un innovador que tuvo la ocurrencia de hacer un guante de fibras de mimbre entretrejidas. Este guante se importó a Guipúzcoa y tuvo un éxito que no alcanzaron otros aparejos similares o a modo de raquetas, que se idearon casi a la par. De aquí surgió la "txistera" o cesta, que hoy es tan conocida como objeto deportivo. Las modificaciones introducidas en la fabricación de las pelotas y la construcción de frontones con pared izquierda modificaron en absoluto el concepto del deporte en grandes áreas del País Vasco. Surgió, en primer término, el juego contra la pared ("ble" o "blaid") con cesta; surgió también el juego a mano contra la pared por parejas. Se generalizaron después modalidades como la de la cesta-punta o "juego sucio", en que se usaba una cesta profunda con la que se retenía algo la pelota; la del "remonte", propia de profesionales navarros y guipuzcoanos, con cesta más recta, la de pala, más cultivada por los bilbainos y la del trinquete o frontón cerrado.

El profesionalismo deportivo moderno y las posibilidades que la pelota da para los aficionados a jugar dinero han hecho que estas modalidades recientes tengan una gran expansión.


Artisaua: JORDI MARTI PARES

Jaioteguna: / Fecha de nacimiento:
1955, Maiatzak 23 - BARCELONA

Helbidea: / Domicilio:

Toki-Eder Etxea, Zubieta Auzoa
DONOSTIA (Gipuzkoa)

Telf. 37.17.10



Aurkezpen gisa:

Barcelonan tindatutako hondarrez azalduko erakusketa baten ondoren ekiten dio "hobby" gisa. Brasildik ekarritako botilak ziren, eskulangintza honetan joera haundiko estadia baita, ondar kolore desberdinako hondartzak dituelarik.

1980 urtean Donostiara dator bizitzera. Lana Hernaniko Posta zerbitzuan egingo du. Brasildarrek ez bezalako prozesuaz baliaturik Donostian Parte Zaharreko ferietan saltzen hasten da. 1981 urtean artiasu gisa lan honi lotzen zaio bete betean.

Bere produzioaren ehuneko 70 Frantziaren hego aldean saltzen du. Gainontzkoa Donostia eta bere ingurutan.

Otros datos:

A raíz de una exposición de botellas con arenas teñidas, en Barcelona, comienza lo que va a ser su "hobby". Eran botellas traídas del Brasil, país de gran tradición en este campo, al existir playas con arenas de diferentes tonalidades.

En 1980 se traslada a Donostia donde trabaja en Correos de Hernani. Aunque con un proceso distinto del brasileño, comienza a vender en las ferias de la Parte Vieja donostiarra. En 1981 decide dedicarse exclusivamente a este trabajo artesano.

Vende los productos en el Sur de Francia, el 70% de su producción. El resto lo comercializa en Donostia y sus alrededores.

HONDAR TINDATUAK

Ederlanaren munduari lotu zaio artizautza mota hau eta horrenbestez opari munduari. Hondarra eta kolorea protagonista izanik era guztietako sorkuntza eta esperientziei zabalik.

Langai bezala silize harri hondar zuria darabilte. Burgosko harrobi batetik dakarte eta langai bezala Barcelonan prestatzen.

Prestaketak lehenik hondarra galbahe gisako batzutan pasatzen dute neurri beretsuko hondar alea bereizteko. Hondar ale lodiegiak ez du balio ezta hondar ale fin finak ere.

Hondarra tindatu ahal izateko hormigonera tipi batetan sartzen dute, lehorrean kolorante batez nahasi eta disolbente sintetikoa isuri, ondoren. Gero guztia lehortzen uzten dute. Berririo sare finetik pasaratzen dute eta hor dago prest langai bezala erabiltzeko.

Imutu eta turutz baliatuz hondarra unti barrura isurtzen dute kristalaren inguruan orratz eta espatulaz lagunduz egileak nahi duen forma ematen dio. Dibuxoa burutu eta gero indarrean zikatzen da horrela hondarra mugitu ez dadin, dibuxoak ezabatu gabe iraun dezan. Enkolatutako kortxoak ukituko du hondar gain kapa. Kortxoak ezarri ondoren lakratu eta horra hor lana bukatua.

Lan horretan behar duen denborak dibuxoaren zailtasunarekin eta untzien neurriarekin zer ikusi haundia izango du.

ARENAS TEÑIDAS

Esta artesanía está ligada estrechamente al mundo del adorno y con ese fin al mundo del regalo. Un mundo abierto a todo tipo de creaciones y experiencias en el que la arena y el color son los protagonistas.

La materia prima es la arena sílicea blanca. La cantera de procedencia se sitúa en Burgos y la preparación para su uso dentro del proceso artesano se realiza en Barcelona.

El proceso de elaboración comienza con el tamizado de la arena en dos ocasiones con el fin de utilizar solamente arena de tamaño uniforme. En este paso se desecha tanto la arena de grano grueso como la de grano muy fino.

Para su coloración, se mete dentro de una pequeña hormigonera en la que se mezcla en seco con el colorante y un disolvente sintético, para más tarde dejarlo todo a secar. Se vuelve a tamizar y ya está lista para comenzar el proceso de construcción del dibujo.

Se comienza depositando, mediante tubos y boquillas, la arena en la botella de cristal. La arena se irá pegando a las paredes del recipiente y se soportará encima de la arena anteriormente depositada. Poco a poco, mediante espátulas y agujas se van colocando las diferentes arenas coloreadas que formarán el dibujo final. Una vez hecho el dibujo se procede a prensar la arena, para evitar que se mueva y desaparezca el dibujo. Si alguna zona se mueve es en este momento cuando hay que volver a colocarla en su lugar.

Un tapón de corcho encolado y lacrado, estando en contacto con la última capa de arena, dará por finalizada la operación. El tiempo utilizado vendrá dado por la complicación del dibujo y el tamaño de la obra.

Artisaua:

M.^a JESUS PORTILLO ERKIAGA
(Eibarko Damaskinatu Eskola)

Jaioteguna: / Fecha de nacimiento:
1940, Abenduak 31

Helbidea: / Domicilio:

Vista Alegre Kalea, 17-1.^o erd.
EIBAR (Gipuzkoa)

Telf. 71.78.20



Aurkespen gisa:

Eibarko Damaskintza Eskolan 1955 urtean hasi zen ikasten langintza hau. Lucas Alberdiren eskutik ikasten du. Brotxe-orratzak, esklabak dortokak, posta irekigailuak, hautsontziak, eta abar lantzen zituzten. Egindako lan hauek irakasleak dendekin zabalduko salmenta sareaz baliatuz saltzen zituzten. Atzerrira ere saltzen zen zenbait produktu.

1964 urtean artisautza lanak utzi eta familia bizitzaren zereginari lotzen zaio. Eibarko Damaskintza Eskolak utzi zion azken hamarkadarekin egokitu zen lanuzte hau.

1984an Eibarko Udalak Danaskintza Eskolarako plaza deialdea zabaltzen du. M.^a Jesusek bere burua aurkezten du eta baita plaza eskuratu ere. Gaur egun Eibarko Damaskintza Eskolan irakasle bezala bizi da.

Hamazazpi ikaslez osatutako eskola honetan, Damaskintza espezialitatea hiru urtetako lanak eskatzen ditu. Eskolarentzat dira irakasleak eginitako lanak eta ikasleentzat, eskolari salmentaren ehuneko hamabosta utzi eta gero, lan salmentaren irabazia.

Otros datos:

En 1955 comienza a aprender esta especialidad en la Escuela de Damasquinado de Eibar.

Aprende con el profesor Lucas Alberdi, y la producción era de broches, esclavas, tortugas, abrecartas, polveras, etc... Estos productos los vendían por medio de la red de ventas entre el profesor y las tiendas. También se llegaba a exportar algunos productos.

En 1964 abandona su trabajo artesanal para dedicarse a la vida familiar. Esta situación coincide con la última década en la que la Escuela de Damasquinado de Eibar permanece sin funcionar.

En 1984 el Ayuntamiento de Eibar saca plazas para la Escuela de Damasquinado. M.^a Jesús se presenta y saca la plaza. En la actualidad vive siendo profesora de damasquinado en la Escuela de Damasquinado de Eibar.

Actualmente hay 17 alumnos y los cursos son de tres años con especialidad en Damasquinado. Los trabajos efectuados por ella son para la escuela y los efectuados por los alumnos, tras la venta, el 15% es para la escuela y el resto para ellos.

DAMASKINTZA

Oso lan fina da damaskintzarena. Labaintxo zorrotz batez lantzen da, metalaren gain azala zaurituz, lerroak luzatuz, era ronboidalez pikatuz, muza limen antzeko dibuxo lanak eginez, horretarako burdin egokiak erabiliz. Pieza horrela prestatu eta gero, urrezko hari fin fin bat hartuz, zeina urrezko edozein hariri zilarrezko txapa aplikatuz lortzen baita, azken iladaren zulotik pasatzen da; horrela luzatutako haria azido nitrikoaren eraginez, zilarra disolbatu egiten da eta damaskintza lantzeko ezinbestekoa den hari fin fina lortzen da. Aipatu erara lortutako urrezko hari fin hau era guztietako dibuxo eta lanetan erabiltzen da. Burdinean aurrez eginitako pikatu lanean, zirrikituetan, haria ezartzen da mehe eta malgua baita. Lehenik perfilen ertzak bete eta ondoren gainontzeko hutsarteak osatuko ditu. Lan hori bukatu eta gero sutan ipintzen da pieza urdin kolorea beregana dezan arte. Ondoren lan guztia labainkor utziko du horretarako tresna aproposaz, ezarritako urrezko haria tinkatuz eta hari formak ezabaraziz.

DAMASQUINADO

Es el damasquinado una labor finísima ejecutada sobre hierros tenaces o bien batidos, cuya superficie permite, por su tersura o unión, practicar un picado romboidal a manera del que tiene las limas muzas con un cuchillito muy afilado, y sólo con la continuación de ir trazando líneas sobre el metal e hiriendo su superficie. Preparada la pieza de esta manera se toma un hilo capilar de oro, el cual se obtiene únicamente aplicando a un hilo de oro cualquiera una chapa de plata del grueso conveniente y así preparado se pasa por la hilera en su último agujero; de aquí resulta que sometido el alambre ya estirado a la acción del ácido nítrico, la plata se disuelve, y se consigue el hilo capilar que es el único con que puede hacerse la operación del damasquinado. Este hilo de oro, obtenido del modo dicho, se emplea en toda clase de dibujos y labores, colocándole con un punzón de presión encima del picado ejecutado en el hierro, introduciéndolo en él por su delgadez y ductilidad, primero contorneando o trazando los perfiles, y cuajando o llenando después los espacios que hayan de estar más fuertes. Hecha esta operación se somete la pieza al fuego hasta que adquiera un color azul y entonces por medio de un bruñidor de piedra sanguínea, se bruñe toda la labor o adorno practicado, dilatando por este medio el oro introducido, que adquiere así firmeza y estabilidad y hace desaparecer el conjunto de hilos.

Artisaua:
AITOR EGUIBAR ARANJUELO
(Asociación Guipuzcoana de
Modelismo Estático) AGME

Jaioteguna: / Fecha de nacimiento:
1962, Uztailak 2

Helbidea: / Domicilio:
Ibaeta Auzoa, 7-2.º
DONOSTIA (Gipuzkoa)

Telf. 21.03.41



Aurkezpen gisa:

Hamairu edo hamalau urte zituela hasi zen modelismo estetiko lanetan. Hase-ran maketagintzan dihartu, hara nola hegazkinak, tankeak eta abar eginez. Soldaduska amaitu eta gero, figurismoaren munduan murgiltzen da. Madrileko modelismo dendak korritzen ditu eta "kit" modelismo lanetan hasten bada ere, berunezko modelismo lanak burutz amaituko du.

Burututako istudioen ondorioz, dekoratzaile tituluaren jabe da. Halaz ere berunezko soldadutxoaren artisautza sailekoa berekasa ikasia du.

Duela bi edo hiruren bat urte Gipuzkoako Modelismo Estetikoaren Elkartearen sartu zen. Era guztietako irudigintzan dihardu, estalpetxoak, danborradak eta abar, jasotako enkarguen arabera, landuz.

Otros datos:

Desde los trece o catorce años comienza a trabajar con el modelismo estático. En principio hace maquetismo (KIT) montando aviones, tanques, etc... Más tarde, durante el servicio militar, pasa al figurismo. Comienza a recorrer las tiendas de modelismo de Madrid y comienza con modelismo de "kit" y termina haciendo moldes de plomo.

Dentro de sus estudios tiene el título de decorador, aunque la faceta de la artesanía de los soldados de plomo la tiene de forma autodidacta.

Hace dos o tres años se integra en la Asociación Guipuzcoana de Modelismo Estático (A.G.M.E.). Trabaja en todo tipo de figuras de belenes, tamborradas, etc., según recibe los encargos. Casi todos los productos los pone a la venta en una tienda de juguetes en la Parte Vieja donostiarra.

BERUNEZKO IRUDIGINTZA (MINISTURISMOA)

Historiaurretikoa da gudagizonak miniaturaz edo irudi tipiz erre-presentatzeko joera. Egipto eta Txinako faraoi-enperadoreen hilobietan, adibidez, gudagizon eta guda-gurdi kolekzioak aurkitu izan dira.

Duela ehunen bat urtez geroztik, industria eta finantzaren iraultza eman zenez geroztik, horrelako iruditxoaren salmenta erruz hazi zen. Berunezko soldadutxoak, jostailu gisa, istimazio haundikoak izango dira Ingalaterran Victoria erreginarene garaiko gaztetxoaren artean.

Horrelako irudiak egin ahal izateko, lehenik silikona gorri bitan banatutako moldeak egiten da. Beruna untzi batetan urtu, moldeak zentrifugailu batetan sartu eta urtutako beruna gailuaren ipinitako imutu batetik isurtzen zaio. Zentrifugailuaren eraginez moldeak sartutako beruna indarrean sartzen da zokogune guztietara iristen delarik. Beruna lehortu eta gero ateratzen da moldetik, eta ondoren irudia lantze lanari ekiten zaio. Limaz landu eta gero inprimak fosfatantea azartzen zaio eta pintatuz amaitzen, aldetik hedatuenak lehenik eta azken detaileak gero.

FIGURITAS DE PLOMO (MINIATURISMO)

